



ALKATE EBAZPENA

MIKEL UHARTE MARTIJA JAUNAK, LARRAUNGO ALKATEAK, GAURKO EGUNAREKIN HONAKO EBAZPENA EMAN DU:

Gaia: Larraungo Udaleko administrari ofizial lanpostua: behin behineko zerrenda onartzea, euskara proba deialdia, eta epaimahaia izendatzea, aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko prozesu bereziaren barnean.

Maiatzaren 20ko 30/2022 Alkate Ebazpenaren bidez onetsi zen 2022rako lan publikoaren eskaintza, aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuak eta deialdi bereziak ezartzen dituen, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean xedatutakoaren arabera. Aipatu ebazpena 2022ko 103. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, maiatzaren 26koan, argitaratu zen.

2022ko azaroaren 8ko Batzar Erabakiaren bidez, toki erakunde hau osorik atxikitu zitzaion uztailaren 1eko 19/2022 Foru Legearen II. tituluan jasotako erregulazioari, foru lege horren bidez neurriak hartzen baitira Nafarroako Administrazio Publikoetan egonkortze-prozesuak gauzatzeko, abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondorioz, salbu: 4. eta 11. artikuluei dagokienez, iritzi baita Foru Komunitateko Administrazioari dagozkiola; 7.a.3) puntuari dagokionez, bakarrik baloratuko baitira beste administrazio publiko batzuetan lanpostu berean egindako zerbitzuak; eta garbitzailearen lanpostuari dagokionez, 7.b.2 artikulua izan ezik –atzerriko hizkuntzen puntuazioari buruzkoa– izan ere lanpostu horretan ez da puntuatuko atzerriko hizkuntzen ezagutza.

15/2022 Alkate Ebazpenaren bidez, azaroaren 30ekoa, onetsi zen deialdia, lanpostu hutsak merezimendu-lehiaketaren bidez betetzeko, aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko prozesu bereziaren barnean, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean xedatutakoaren arabera.

Deialdia abenduaren 12ko 247. zenbakidun Nafarroako Aldizkari Ofizialean (berezia) eta Udaleko web orrian argitaratu zen.

Horiek horrela, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1. artikuluan ezarritako eskumenak erabiliz,





ERABAKIA:

1.- Euskara proba.

Deialdian eskatzen zen euskararen gaitasun agiririk ez duten izangaiek, euskaraz badakitela frogatu beharko dute. Horretarako, beharrezko probak egin beharko dituzte eta hartan gai edo ez-gai kalifikazioa emanen zaie. C1 ezagutza maila edo horren baliokidea eskatuko da.

Probak Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateak egingen ditu.

Tokia: Larraungo Udaletxeko 1.
solairuan. Eguna: 2024ko martxoaren
4an.
Ordua: 10:00etan.

Proba hori egin nahi duten izangaiek eskaera egin beharko dute Larraungo Udaletxean ebazpena jakinarazi eta lau egun naturaleko epean.

Proba hori burututakoan, gai kalifikazioa lortu dutenek, edo gaitasun agiria nahiz baliokidea dutenek, merezimendu-lehiaketan parte hartu ahal izanen dute.

2.- Erabakia interesdunei jakinarazte, dagozkion ondorioetarako.

Ebazpen honen kontra, errekurso hauetariko bat aurkez daiteke, hautara:

1.- BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA, egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik hasita edota GORA JOTZEKO ERREKURTSOA, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean ebazpen hau jakinarazten denetik aitzina.

2.- ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOA, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Sailari zuzendua, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik aitzina.

Mugiron, Larraunen, sinadura elektronikoaren datan.

ALKATEA

IDAZKARIA

Ana Alduntzin Navarro

